

GERRA ZIBILA MARKINAN ETA XEMEINEN: SOZIOLOGIATIK EGINDAKO IRAKURKETA

“Marquina era una plaza militar”

Alberto Onaindia: *Un Hombre de Paz en la Guerra*

Gerra Zibilean, Markinak eta Xemein herriek² ez zuten bizi izan Otxandiok (1936ko uztailak 22), Durangok (1937ko martxoak 31) edo Gernikak (1937ko apirilak 27) bezalako bonbardaketarik, txikiziorik eta hildako kopururik. Hala ere, gerraren ondorioak oso larriak izan ziren bi herriotan. Alde batetik, kontuan izan behar da, zazpi hilabetez (1936ko irailaren 21etik 1937ko apirilaren 27ra), Markinako eta Xemeingo erdigunetik, oinez joanda, 40 minututara egon zela gerrako frontea geldituta, eta, horregatik, ehunka miliziar eta gudari etorri zela gure herrira, gizarte bizitza goitik behera aldatuz. Bestetik, Markinako eta Xemeingo 400 gazte baino gehiago joan ziren alde bateko zein besteko fronteetara borrokatzera (Egaña, 2000, VIII. tomoa), eta hauetariko 53k bizia galdu zuten, hainbat zauritu zituzten eta beste askok urteak egin behar izan zituzten kartzelan, kontzentrazio esparruetan edo langileen batailoietan, bizi-baldintza oso txarretan. Gainera, “plaza militar” zirenez, bi herriok bonbardaketa eta eraso ugari jasan behar izan zituzten, eta, ondorioz sei pertsona hil ziren (guztira, 15 zibil hil ziren

² Xemeingo Udala 1952an anexionatu zen Markinako Udalarekin eta, gaur egun, Markina-Xemein osatzen dute.

gerra zibilean). Markina eta Xemein herri txikiak ziren 1936an (Markinak 1.898 biztanle zituen eta Xemeinek 1.347), eta Gerrarak zauri psikologiko eta sozial larriak ireki zituen.

Gerra zuzena 1937ko apirilaren 27an bukatu zen Markinak eta Xemeingo lurretan, militar matxinatuek miliziarren eta gudariaren erresistentzia apurtu, eta herria hartu zutenean. Bonbardaketak eta erasoak egun horretan bukatu ziren, baina, ostean, frontea Markinako eta Xemeingo lurretan geldirik egon zen hiletan baino samin eta bortizkeria handiagoa ezagutu zuten herritarrek; batez ere, abertzale, ezkertiar eta errepublikazaleek. FET-JONS-eko kideen eta militar matxinatuen errepresioaren beldurrez, 135 bat pertsonak ihes egin zuten; 115 bat herritar atxilotu zituzten; lau markinar eta xemeindar fusilatu zituzten; eta 11 emakumeri ilea moztu zieten. Hainbat izan ziren isunak ordaindu zituztenak, ondasunak edota lanak galdu zituztenak, desterratu zituztenak edota bortxazko lanak egitera behartu zituztenak.

Lan honen helburua da Markinan eta Xemeinen gerra ostean bizi izan zen bortizkeriaren arrazoiak hobeto ulertzea. Eta, horretarako, gatazkaren soziologian lehen ekarpenak egin zituzten bi soziologoren lanetan oinarritu naiz: Lewis Coser-en (1913an jaioa) *The Functions of Social Conflict* liburuan (1956); eta Ralf Dahrendorf-en (1929-2008) *Elementos para una teoría del conflicto social* lanean (1971). Lehenengoak estruktural-funtzionalismotik eta bigarrenak teoria marxisten kritiketatik abiatutako gatazkaren teoria soziologikoak egin zituzten heinean, gerra osteko errepresioaren azterketa osatuagoak egiteko aukera ematen digute.

1. Ikerketa egitasmo zabalago baten parte da

Artikulu hau ikerketa egitasmo zabalago baten parte da. 2006tik, Markinan eta Xemeinen Gerra Zibilean gertatu zena berreraikitzen eta aztertzen ari naiz, garai hura bizi izan zute-



nen zein frankisten errepresioa jasan zutenen seme-alaben eta ahaideen testigantzak bilduz.

Gerrak, giza hondamendiak, tragedia handiak, holokaustoak... merezi duten zehaztasunez eta zorrotasunez izan dira jasoak eta azertuak munduko hainbat tokitan, zorigaitza bizi izan zutenak oroitzeko. Gure artean, gutxi egin da arlo horretan. Gerra Zibilari buruzko ikerketa orokorrak badaude, baina hutsune handiak daude herrietan gertatu zenari buruz. Zehazki, gutxi aztertu da gerra osteko errepresioaren mekanismoak herrietan nola funtzionatu zuten, eta horien ondorioak. Beraz, ikerketa honen helburua da Gerra Zibilak Markinan eta Xemeinen izan zuen eragina aztertzea, eta, horrekin batera, frontetan hil zirenen, erbesteratuen, bonbardaketen edo tiroen ondorioz hil zirenen, fusilatu zituztenen, ilea moztu zieten emakumeen edota espetxean urteak egin zituztenen memoria bizirik gordetzea; bereziki, frankismoaren kontra eta askatasunaren, demokraziaren eta Errepublikaren alde borrokatuta, errepre-

sioa jasan zuten markinarren eta xemeindarren memoria gor-detzea. Izan ere, Gerra Zibila, min eta drama ugari duelarik ere, gure ondare historikoa da. Ondo ezagutu eta gorde beharreko ondarea. Oso kontuan izan behar dugu memoriarik gabeko herriak identitaterik eta etorkizunik gabeko herri bihurtzen direla, eta iraganeko okerretan jausteko arriskua izaten dutela.

2. Markina eta Xemein gizarte kohesionatuak errepublika garaian

Errepublika garaian, tradizionalistak ziren nagusi Markinan eta Xemeinen³; baina EAJ-k gero eta indar gehiago zuen. Egia esan, EAJ eta, batez ere, Comución Tradicionalista ziren Markinako eta Xemeingo alderdi politiko indartsuenak eta eraginkorrenak. PSOE-k eta errepublikarrek ere bazuten nolabaiteko antolaketa (Egiguren, 1984), baina indar gutxi zuten bi herriotan.

Tradizionalistek, abertzaleek, sozialistek eta errepublikarrek ideologia eta interes desberdinak zituzten, baina, nire ustez, gerra aurreko urteetan, herritarren artean ez zegoela apurketa bortizik (Juaristi, 2006). Aurkakotasun politikoa eta ideologikoa ukatu gabe, batzuk eta besteak elkarrekin parte hartzen zuten herriko bizitzan, eta, nire iritziz, Markina eta Xemein gizarte kohesionatuak ziren. Alderdi nagusienetako kideak, hau da, tradizionalistak eta abertzaleak, kulturalki euskaldunak ziren, foruak berreskuratzearen alde zeuden eta katoliko sutsuak ziren. Ideologia desberdinen gainetik, oinarri linguistikoa, kultural eta erlijioso bera zuten herritar ia denek, eta horrek guztiak desberdintasun politikoak arintzen zituen eta bi herriotako kohesio soziala ahalbidetzen (Goñi, 1989:53).

³ Tradizionalistak karlisten ondorengoak dira, eta askotan batzuk eta besteak nahastu egiten dira. Garai hura bizi izan zuten markinarrek eta xemeindarrek ere karlista edo erreketek hitza erabiltzen dute tradizionalistak izan zirenei buruz hitz egiteko.

Kohesio sozial horretan berebiziko garrantzia zuen erlijioak. Kristau sinesmena oso errotua zegoen markinarren eta xemeindarren artean, eta elizak eta elizgizonek desberdintasun ideologikoak murrizteko eta herritarrak biltzeko gaitasuna handia zuten. Alde bateko zein bestekoek elizkizunetan eta herrian hain ugariak ziren elkarte eta kofradia erlijiosoetan parte hartzen zuten (Urkiza, 1992:371-400).

Aisialdiko jardueretan ere elkarrekin bat egiten zuten herritarrek (Bilbao 1995 eta 2009). Kirol ikuskizunetan, tabernetan eta sagardotegietan, erromerietan edota jaietan elkarrekin ari ziren alde bateko zein besteko markinarrak eta xemeindarrak.

Herriko kohesio sozialaren erakusle ere bada 1931ko apirilaren 12ko udal hauteskundeetan, abertzalez, tradizionalistez eta ezkertiarrez osatutako zerrenda bakarra aurkeztu zela hauteskundeetara Markinan, eta garaiko hauteskunde legearen 29. artikuluari jarraituz, aurkeztu zen zerrenda atera zela aukeratu, bozketarik egin gabe. EAJ-k alkatea eta bost zinegotzi lortu zituen, Comuni3n Tradicionalistak bi eta PSOE-k eta errepublikarrek bat. Xemeinen ere ez zen lehiarik egon. Markinan bezala, tradizionalista, abertzale eta ezkertiarrek akordioa lortu zuten, eta zerrenda bakarra aurkeztu zen hauteskundeetara. Markinan ez bezala, Xemeinen tradizionalistek hartu zuten alkatetza.

Tradizionalisten eta abertzaleen artean zegoen harreman onaren erakusle ere bada 1931ko ekainaren 28an egin ziren Errepublikaren Gorte Konstituziogileak aukeratzeko hauteskundeetan, EAJ eta Comunion Tradicionalista elkarrekin joan zirela Estatutuaren Defentsarako Euskal Hautagaitza - Candidatura Vasca Defensora del Estatuto (CVDE) izeneko koalizioan, eta, biek batera, 15 ezarleku lortu zituztela Gorteetan; Hego Euskal Herriko beste alderdiek baino gehiago. Koalizio honen helburua zen Euskal Herriko udalik gehienek Lizarran 1936ko

ekainaren 14an onetsi zuten Autonomi Estatutuaren egitasmoa Errepublikako Gorteetan aldezte (Rodríguez, 1996: 15).


Desberdintasun ideologikoen gaintetik, tradizionalistak, abertzaleak eta ezkertiarak akordioetara heltzeko gai ziren Errepublikaren hasierako urteetan. 1933tik aurrera, herriko buruzagi tradizionalisten eta abertzaleen artean mesfidantzak eta ikusi ezinak handitzen joan ziren, baina, ordura arte, Markina eta Xemein gizarte kohesionatuak zirela pentsa daiteke.

3. Gerra Zibilak kohesio soziala apurtu zuen

Altzamendua gertatu ondorengo egunetan (1936ko uztailaren 22tik aurrera), markinarrak eta xemeindarrak, batez ere tradizionalistak, kezkatuta zeuden, jende ezezaguna zebilelako herrian, pistolak eta armak agerian zituztela, indar erakustaldiak egiten. Egun gutxira jakin zuten Santiago Meabek zuzentzen zuen Errepublikaren aldeko Batzordeko miliziarrek zirela⁴. Batzorde hau herriko zein kanpoko Herri Fronteko kideez (Izquierda Republicanako kideak eta, batez ere, sozialistak) osatua zegoen, eta bere helburua zen Errepublika babestea, ordenu publikoa ziurtazea eta faxistei aurre egiteko frontea antolatzea.

Santiago Meaberen zuzendaritzapean zeuden herriko eta inguruko miliziar ezkertiarak herriko sarrerak eta irteerak kontrolatzen hasi ziren (Juaristi, 2006). Egoera istilutsu eta nahasi honetan, tradizionalista eta eskuindar batzuk, beldurtuta, ezkutatzea erabaki zuten (tartean, Markinako alkate tradizionalista, Jose Luis Gaytan de Ayala eta bere familia). Beste batzuk militar matxinatuen aldera ihes egin zuten. Hasieran, fronteak

⁴ Santiago Meabe (Bilbo, 1878-1961) Tomas Meabe politikari sozialistaren anaia zen. Hasieran, nazionalista eta sabindar sutsua izan zen, baina gero, bere anaia bezala, sozialista egin zen. Errepublika garaian, Ondarroan bizi zen, eta, horregatik, Bizkaiko Gobernadore zibilak Markinako Plazako Delegatu egin zuen, eta Markina inguruan frontea antolatzeko eta ordenu publiko zaintzeko ardura eman zion.



behar bezala zehaztu gabe zeudenean, oso erraza omen zen matxinatu frankistengana, Nafarroara, ihes egitea.

Gerra hasi eta gutxira, tradizionalisten susmo txarrenak bete ziren. 1936ko uztailaren bukaeran, ideologia tradizionalista zuten batzuk atxilotu egin zituzten, eta Markinako kartzelan sartu; hauetariko bat Bilboko kartzelara ere eraman zuten. Atxilotetak egin zituzten miliziar ezkertiarren helburua zen Jose Luis Gaytan de Ayala (1907-1993) Markinako alkate tradizionalistaren ezkutalekua ezagutzea⁵.

Atxilotutako tradizionalista guztiek oso gaizki pasatu omen zuten Markinako kartzelan. Tratu txarrak jasan omen zituzten miliziarrengandik. Gainera, 1936ko irailean, Markinako eta Xe-

⁵ Jose Luis Gaytan de Ayala Markinako alkate tradizionalista zen 1933tik; Gipuzkoako Diputatu probintzial izan zen 1926tik 1930era, Primo de Riveraren diktadura garaian; eta 1936ko hauteskunde orokorretan, Espainiako legebiltzarrerako Comunion Tradizionalistako hautagaia izan zen, baina ez zuen jesarlekurik lortu Diputatuen Kongresuan.

meingo hainbat tradizionalista isunak ordaintzera behartu zituzten, “faxista” salaketapean. Besteak beste, 1936ko irailaren hasieran, Bizkaia Defendatzeko Batzordeak 120.000 pezetetako isuna jarri zion alkate tradizionalistaren aitari, Alejandro Gaytan de Ayalari (Barruso, 1996), batzorde honen arabera, hitzez eta egitez frankisten altxamendua babestu zuelako, eta matxinatuei armak erosteko dirua eman zielako. Alejandro Gaytan de Ayala 1936ko abuztuan desagertu zen Markinatik, eta, beraz, ez zuen isuna ordaindu; ondorioz, 1936ko irailaren 13an, bizi ziren jauregia eta beste hainbat jabego bahitu zituzten erabilpen militarretarako (Azkona, 2007:28). Markinako eta Xemeingo beste hainbat tradizionalisten etxeak eta jauregiak ere bahitu zituzten, soldaduei eta Gipuzkoatik etorritako errefuxiatuei ostatua emateko (Urkixo, 1947:18-19).

Markinako eta Xemeingo lurretan frontea geldirik egon zen hileetan, herriko tradizionalistek beldur asko pasatu omen zuten. Batzuk (15 bat lagun) atxilotu ere egin zituzten. Dena dela, gehienek bizimodu normala egin ahal izan zuten. Horrez gainera, atxilotutakoek denbora gutxi egin zuten kartzelan. EAJ-koek lan izugarria egin omen zuten kartzelaratu zituzten tradizionalistei tratu ona ziurtatzeko eta kartzelatik berehala ateratzeko (Onaindia, 1937). Markinako tradizionalista bakarra hil zen gerra garaian, eta bera Bilbon (Juaristi, 2008). 1937ko urtarilaren 4an, kontrolik gabeko miliziarrek Bilboko espetxeetan zeuden 234 pertsona hil zituzten, hegazkin alemanek Bilboren aurka egin zuten bonbardaketa mendekatzeko; hildakoen artean, markinar bat zegoen.

4. Frankistak markinan sartu ziren

Gerrako frontea zazpi hilabetez mugitu gabe egon ostean, 1937ko udaberrian hasi zen Bizkaia menderatzeko matxinatu frankisten ofentsiba. Eraso honen baitan, hegazkinez egindako lehen bonbardaketa handia Durangoren aurka izan zen,

1937ko martxoaren 31n, eta italiarren hegazkinek 257 pertsona hil zituzten (Irazabal, 2001). Udaberrian hasi zen ofentsiban, frankistek Markina ere bonbardatu zuten apirilaren 25ean (Juaristi, 2008).

Apirilaren 26an, Gernika bonbardatu zuten egunean (Atxaga, 2007), soldadu errepublikarrek Markinako Frontea utzi zuten (Alvarez, 2007:69), eta ihesari ekin zioten. Soldaduekin batera, hainbat markinarrek eta xemeindarrek ere ihes egin zuten militar matxinatuen eta tradizionalisten mendekuaren beldurrez (Onaindia, 1980). Herritarrek Gipuzkoan gertatutako abertzale, euskaltzale eta ezkertiarren fusilatzeen berri zuten, eta 135 pertsona inguruk ihes egin zuten soldadu frankistak sartu baino lehen. Ihesean zihoazen markinar eta xemeindar askok ikusi zuten Arbatzegi-Gerrikaitz eta Gernika bonbardatzen edota erretzen (Onaindia:1980). Gelditu zirenetariko asko ezkutatu egin ziren edota kutsu abertzalea edo ezkertiarra zuten egunkariak eta liburuak erretzen aritu ziren gau osoan.

Gernika bonbardatu osteko egunean, apirilaren 27an, sartu ziren tropa frankistak Markinan eta Xemeinen. Egun horretan, markinar eta xemeindar asko atera zen kalera, erreketeei arrera beroa egitera. Tradizionalistek indar asko izaten jarraitzen zuten Markinan eta Xemeinen, eta hauetariko askok lasaitu ederra hartu zuten erreketeen tertzioak herriko kaleetan ikusi zituztenean. Ospatzeko, tradizionalistek erromeria ere antolatu omen zuten.

Markina eta Xemein errepublikarrek kontrolatzen zuten gerrako fronte izatetik matxinatuek militarri hartutako herriak izatera pasatu ziren. Berehala, maiatzaren lehenengo egunetan, Luis de la Chapelle komandanteak Udaleko Batzorde Kudeatzailea sortu zuen. FET-JONS alderdian integratu ziren buruzagi tradizionalistek osatu zuten batzorde hau; hain zuzen ere, errepublikarrak agintean egon ziren garaian atxilotuta egon zirenek edota isunak eta ondasunen bahiketak ezagutu zituztenek

(Garaian, 1, 1987:29). Abuztuan, Markinako eta Xemeingo udal berriak osatu ziren, eta kasu honetan ere, isunak, atxilotetak eta bahiketak jasan zituzten tradizionalista sutsuenak hartu zuten udaleko agintea.

5. Errepresioa hasi zen

Zabala jauregian kokatu zen Jose Seva infanteriako teniente koronelak jakinarazi zieten alkate eta zinegotzi berriei eta, oro har, herriko FET-JONS-eko kideei, beharturik zeudela herriko mugimendu gorri separatistaren eta ezkertiarren buruzagi guztien izenak justizia militarri ematera, eta alderdietako militanteen izenak ere eman behar zituztela (Molina, 2005:155). Zabala jauregiko militarrek hasieratik bultzatu zuten herritarren errepresioa, eta, ondorioz, tradizionalistek lan asko egin zuten herriko abertzaleak, euskaltzaleak, ezkertiarak edota errepublikazaleak salatzen eta kartzelaratzen. Herriko tradizionalistek eta FET-JONS-eko kideek nortzuk atxilotu behar ziren, zein emakumeri ilea moztu behar zitzaien edota isuna zein familiei jarri behar zitzaien zehazten zuten. Hainbat kasutan, salatu ostean, kartzelatik edo heriotza zigorretatik libratzeko atxilotuek epaiketetan behar izaten zituzten eskuindarren “aldeko txostenak” ukatu zizkieten (Gerrikagoitia, 2000). Aurretik politikan sartu gabe zeuden markinar eta xemeindar asko ere FET-JONS alderdiko kide egin ziren, badaezpada, eta 1937ko maiatzetik aurrera ezkertiarren eta abertzaleen kontrolatzaile eta salatari bihurtu ziren, Markinako eta Xemeingo gizarte bizitza hankaz gora jarritz.

Udalean agintea zuten tradizionalistak zein FET-JONS-era afiliatu ziren herritarrek zigorgabetasun osoz aritu ziren herriko abertzale eta ezkertiarrek zaintzen (Bidasoa, 2005: 715). Kasurik onenean, ‘Erantzukizun politikoak’ delako isuna jarzten zioten jendeari, txostenetan abertzale edo ezkertiar bezala agertzen zirelako (Molina, 2005:164). Salaketa, isun eta

heriotza hauek guztiek beldur asko eragin zuten herritarren artean, eta funtsezkoak izan ziren erregimen berria sendotze-rakoan. Zoritxarrez, Mola jeneralak, matxinada hasi osteko egunean, 1936ko uztailaren 19an, eman zituen aginduak egi bihurtu ziren: “Izua erein behar da...mendekotasun sentsazioa utzi behar da, guk bezala pentsatzen ez dutenak eskripulorik gabe desagerraraziz...” (Mola jenerala, Iruñea, 1936ko uztailaren 19an). Militar frankistek eta herriko FET-JONS-eko kideek, elkar hartuta, errepresio izugarria antolatu zuten (Bidasoa, 2005: 715):

- Frankistak sartu aurretik 135 bat pertsonak ihes egin zuten Markinatik eta Xemeindik. Batzuk bueltatu egin ziren etxera, egun edo hile batzuk ezkutatuta egon ostean. Hauetariko asko atxilotu zituzten (bat fusilatu egin zuten) edota isunak ordaintzera behartu zituzten. Markinara eta Xemeinera bueltatu ez zirenetariko gehienak Frantzia irrefuxiatu ziren, eta hainbat kasutan kontzentrazio esparruetan (Gurs, Saint Ciprien...) bizi behar izan zuten denbora luzez (Chueca, 2007). Belgikan edo Hego Ameriketara irrefuxiatu zirenak ere egon ziren. Beldurraren beldurrez, kalera atera gabe, denbora luzez ezkutatuta bizi behar izan zutenak ere asko izan ziren.
- Gelditu zirenen edo bueltatu zirenen artean, militar frankistek hainbat ezkertiar, abertzale eta errepublikazale atxilotu zituzten. Gizon, emakume eta kasu batzuetan baita umeak ere sartu zituzten kartzelan (15 urte zituen Jose Mari Arakistain, adibidez). Beste batzuk Bilbon atxilotu zituzten, hirigunea frankisten eskuetan jauzi zenean, 1937ko ekainaren 19an edo Kantabriar, 1937ko abuztuaren bukaeran. Kasurik onean, atxilotutakoak denboraldi bat kartzelan sartzen zituzten, eta, isuna ordaindu ostean, libre gelditzen ziren. Gehienak urteak egin behar izan zituzten Estatuko kartzeletan.

- Gerra ostean, militarrek atxilotutako markinarren eta xemeindarren artean, lau fusilatu zituzten (Juaristi, 2007): Hilario Aretxabaleta Arriola (Markina, 1888- Derio, 1937), Joan Loiola Izagirre (“Joan Zumarra”) (1903-1937), Anbroisio Mallukiza Aldaolea (Munitibar, 1888 – Derio, 1937) eta Jeronimo Sanchez. Fusilatzeko arrazoiak izan ziren buruzagi politikoak zirela edota, gerra garaian, Errepublikaren Aldeko Batzordean parte hartu zutela. Horrez gain, hiru pertsona kartzelan hil ziren, bizi baldintza txarren ondorioz (Sierra eta Alforja, 2006). Xemeindar bat Frantziako kontzentrazio esparru batean hil zen gaixorik. Gerra garaian, beste hiru markinar ere fusilatu zituzten militar matxinatuek: Zelestino Onaindia Zuluaga (Markina, 1898- Hernani,1936) Hernanin fusilatu zuten, Jose Sagarana (Zeanuri, 1911 - Markina, 1936) Markinan (Gorosabel, 2006) eta Ramon Murua, frontean borrokatzen ari zela.
- Herritar asko militarrentzako debaldeko lana egitera eramane zituzten. Emakume abertzale eta euskaltzaleak erabilpen militarra zuten eraikuntzak garbitzera behartzen zituzten eta gizonak logistika beharrak egitera. Ezkertiarren eta abertzaleen seme-alaba gazteenak ere ez ziren bortxazko lanetatik libratu. Euren gurasoak kartzelan, ihes eginda edo atzerrian zeuden bitartean, neska gaztetxoak erabilpen militarra zuten eraikuntza garbitzen jarri zituzten eta mutil gazteak militarrentzako ordenantza lanak egiten.
- 11 emakumeri ilea moztu zieten, eta gero soldaduak eta asaltoko guardiak koarteleratu ziren tokiak garbitzera behartu zituzten. Emakume hauek herriko ezkertiarren, errepublikarren edo abertzaleen emazte, alaba edo arrebak ziren.
- Hainbat izan ziren isunak ordaindu zituztenak, ondasunak bahitu zizkietenak edo atzerrian bizitzera kondenatu zituztenak.

Nahiz eta errepresio hau guztia gauzatzeko behar ziren bi-tartekoak eta azpiegiturak militar matxinatuek goitik behera bi-deratu eta antolatu zituzten, herritarren salaketak izan ziren errepresio honen guztiaren oinarria. Herriko tradizionalistak edota sortu berria zen FET-JONS alderdiko kideak beste herri-tarren zaintzaile eta salatari bihurtu ziren, Markinako eta Xe-meingo gizarte bizitza hankaz gora jarritz.

Gertatutako guztiaren aurrean, hainbat galdera sortzen zaiz-kit: nola azaldu gertatukoa? Nola ulertu hile batzuk aurretik el-karrekin bizi zirenen arteko salaketak? Non dago gerra osteko herritarren arteko bortizkeriaren oinarria? Nola apurtu zen gi-zarte kohesioa hain modu bortitzean?

Charles Tilly-k *Violencia Colectiva* liburuan dio zaila dela era honetako galderei erantzun egoki bat aurkitzea (Tilly, 2007:11). Dena dela, iruditzen zait gatazkaren soziologian ekarpen hain garrantzitsuak egin dituzten Lewis Coser-en eta Ralf Dahrendorf-en lanek ematen dutela galdera hauen eran-tzunetara hurbiltzeko aukera.

6. Autoritatearen banaketa desberdina: dominazio-men-dekotasun harremanak

Dahrendorf-en arabera (Dahrendorf, 1971), gizarte gatazka-ren sorburu garrantzitsuena ez da, Marx-ek zioen bezala, ekoizpen bideen propietatearen banaketa desberdina, baizik eta taldeen eta pertsonen artean izaten den autoritatearen ba-naketa desberdina.

Autoritatea definitzerakoan, Dahrendorf Max Weber-engan oinarritzen da. Weber-ek bezala, Dahrendorf-ek dio autoritatea dela eduki zehatz bat duen agindu baterako obedientzia lortzeko aukera, agindu hori hartzeko gai diren pertsonen artean (Dahrendorf, 1971:188-198). Boterea, aldiz, gizarte harreman batean inplikaturik dagoen aktore batek, bere aurkako erresistentzia guztien gainera, nahi duena lortzeko duen probabilita-

tea da, edozein delarik probabilitate horren oinarria. Weber-entzat bezala, Dahrendorf-entzat ere, autoritatea eta boterea ez dira nahastu behar. Boterea gizakiarekin loturik dago: gizakiaren indar fisikoarekin, bere gaitasunekin, karismarekin edo betetzen duen tokiarekin zerikusia izan dezake. Autoritatea, aldiz, gizakiak betetzen duen postuarekin edo rolaekin dago lotuta. Beraz, gatazken iturri estrukturalak bilatu nahi badira, autoritatea aztertu behar da, boterea albo batera utziz.

Edozein gizartetan beti daude autoritate gehiago edo gutxiago duten pertsonak eta taldeak, eta autoritate horren menpe daudenak. Beraz, taldeen eta pertsonen artean dominazio-mendekotasun harremanetan oinarritutako harremanak sortzen dira. Talde edo pertsona batzuk euren dominazioa ezartzen dute, eta beste pertsona eta talde batzuk mendekotasuna pairatzen.

Autoritatea, aberastasuna bezala, modu desberdinean banatzen da gizartean. Dena dela, Dahrendorf-en ustez, ondasunen banaketa desberdinean, batzuk beste batzuk baino aberatsagoak dira, baina gutxi dutenek ere zerbait izaten dute. Aldiz, autoritatearen banaketa aztertzen bada, ikusten dena da batzuk autoritate guztia izaten dutela eta beste batzuk ezer ez. Auto-reak honi “autoritatearen banaketa dikotomikoa” deitzen dio, eta bere gatazkaren teoriaren oinarria da.

Autoritatearen banaketa dikotomikoak ondorio garrantzitsuak ditu: interesen gatazka sortzen da autoritatea dutenen eta autoritate honen mende dauden artean. Autoritatea dutenek interes batzuk dituzte komunean, eta euren mende daudenek dituzten interesen desberdinak dira. Denborarekin, agintzen dutenen eta men egiten dutenen interes desberdinak aurkako interesak bihurtzen dira. Interesen gatazka interesen aurkotasuna da. Izan ere, Marx-ek esan zuen bezala, agintzen dutenek euren *status quo-a* gorde nahi dute eta autoritatea pairatzen dutenen interesa da *status quo* hori aldatzea edo deuseztatzea.



Dahrendorf-en arabera, autoritatearen banaketa dikotomikoaren azterketa hobeto egiten da talde edo gizarte txikietan. Gerra garaiko Markina eta Xemein herri txikiak izanik, kontzeptu hau sakonean aztertzeko aukera ematen dute, eta horrek gerra ostean gertatu zena ulertzen lagundu diezaguke.

Errepublika aurreko garaietan, oso gutxi ziren jauntxoek eta herriko buruzagi tradizionalisten autoritatea zalantzan jartzen zutenak. Tradizionalistek eta jauntxoek arazorik gabe lortzen zituzten alkatetzak, zinegotzi postuak, Aldundiko kargu politikoak edota eragin ekonomiko, politiko eta sozial handia zuten erakundeetako aginte postuak. Autoritate politikoa euren eskuetan edo euren gustuko hautagaienetan zegoen, eta hori ez zuen inork zalantzan jartzen.

Ikuspuntu erlijiosotik ere autoritate izugarria zuten. Ideologia tradizionalista zuten Gaytan de Ayalatarrak, adibidez, Markinako alkatetza izateaz gain, Xemeingo eta Markinako Andre

Maria Parrokiako eta Etxebarriako San Andres Parrokiako zaindariak ziren, eta horrek eliza hauetako parrokoak aukeratzeko eskubidea ematen zien. Jauntxo tradizionalisten eta elizgizonen arteko harremana estua zen, eta horrek hauen autoritatea gehiago indartzen zuen.

Nekazaritza ekonomiaren oinarria garrantzitsuena zen gizarte hartan (Mugartegi, 1927), jauntxo tradizionalistak baserri, errota, etxe, baso eta lur ugariren jabe ziren, eta, beraz, euren autoritate ekonomikoa zalantza ezina zen. Errepublikak aurreko urteetan, Markinako zein Xemeingo baserriar gehienak ez ziren etxe jabeak, maizterrak baizik, beraz, maizterrek jauntxoen autoritatea eta aginduak onartzea beste aukerarik ez zuten (Zubikarai eta Fdez. Eiguren, 1991:19 eta Lorenzo, 1996:68). Gainera, euren aberastasunak medio, jauntxoek beste negozio eta inbertsio batzuk ere izaten zituzten (bainuetxeak, argi-indar enpresak, inbertsioak bankuetan, trenbide sareetan edo beste negozio batzuetan...), eta horrek euren autoritatea are eta gehiago indartzen zuen.

Bigarren Errepublikak autoritatearen eskuz aldatzea ekarri zuen Estatu espainiarrera, eta horrek eragina izan zuen Markinan eta Xemeinen ere. Sistema politiko berriak zalantzan jarri zituen jauntxoen eta tradizionalisten pribilegioak eta *status quo*-a, eta horrek hauen autoritatea ahuldu zuen. Errepublikarekin, EAJ asko indartu zen, eta tradizionalistek lehen aldiz galdu zuten Markinako alkatetza, EAJ-ren mesedetan.

Ikuspuntu erlijiosotik, abade eta fraide abertzaleak, euskaltzaleak eta gai sozialei garrantzia ematen zietenak ugaritu ziren Markinako, Xemeingo eta inguruetako parrokiatan zein komentuetan (Urkiza, 1992; Urkiza, Unzueta, eta Fdz. De Mendiola, 2005; Oar-arteta, 1991; eta Ugalde, 1988), eta, ondorioz, ahuldu egin ziren tradizionalisten eta elizgizonen arteko harremanak. Eta horrekin, baita hauen autoritate erlijioso ere.

Ikuspuntu sozial zein ekonomikotik, errepublikak baserri jabeen eta maizterren arteko harremanak aldatu zituen. Errepublikak garaian, maizterrek bizi ziren etxe eta lurrikiko esku-bide gehiago lortu zituzten (maizterrak etxetik botatzea zaildu egin zen, adibidez), eta horrek ere baserri jabe eta jauntxoen autoritatea murriztu zuen. Bestetik, lantegi industrialak edota soldatapeko langileak ugaritu egin ziren (Esperanza fabrika etorri zen Markinara 1933an), eta, gainera, handitu egin zen sindikatueta afiliatutako langileen eta baserriarren kopurua.

Bigarren Errepublikak zalantzan jarri zuen jauntxoen eta tradizionalisten autoritate ekonomiko, politiko eta soziala; ondorioz, jauntxoak eta tradizionalistak Errepublikaren aurka eta matxinada militarren alde agertu ziren. Izan ere, matxinatuen helburuetariko bat zen jauntxoek eta eskuindarrek galdutako autoritatea berreskuratzea. Are gehiago, gerra osteko errepresioaren helburu garrantzitsuena izan zen jauntxoen eta eskuindarren autoritatea zalantzan jarri zutenak desagerraraztea. Horrela, errepresioa bereziki bortitza izan zen abade eta fraide abertzale eta euskaltzaleekin, sindikatueta afiliatutako baserriar eta langileekin, eta alderdi abertzale, ezkertiar edo errepublikazaleetako militanteekin.

7. Taldea eta ia-taldea

Dahrendorf-en arabera (Dahrendorf, 1971), interes taldea eta ez ia-taldea da benetako agente aktiboa interes gatazkak daudenean. Interes taldeek argi dituzte zeintzuk diren euren helburuak eta interesak, eta gai dira gatazken arrazoiak interes eta helburu horien arabera azaltzeko, pertsonak eta taldeak interes horietara erakartzeko eta hauen portaerak bideratzeko. Ia-taldeak, aldiz, interes batzuk komunean dituzten kategoria sozialak dira, eta ez dituzte ondo zehaztuta izaten helburuak eta interesak, eta, beraz, gatazketan ez dira hain eraginkorrak.

Errepublika garaian, lau alderdi politiko zeuden antolatuta bi herriotan: Comuni3n Tradicionalista, EAJ, PSOE eta Izquierda Republicana. Talde bakoitzak bere interes eta ideologia zuen. Dena dela, Gerra Zibilak bi taldetan banatu zituen lau alderdiok. Alde batean, errepublikaren alde eta matxinatutako militarren aurkakoak zeuden; bestean, tradizionalistak eta jauntxo eskuindarrak. Markinan eta Xemeinen, EAJ-koak, Izquierda Republicanakoak eta Alderdi Sozialistakoak halabeharrak eraginda elkartu ziren; hain zuzen ere, gerra egoera hartan, matxinatuen aurka borrokatzeko, bi udaletako arazoak konpontzeko eta herriko bizitza modu egokian antolatzeko.

Hiru alderdi politiko hauek Errepublikaren Aldeko Batzordeak eta Udal Batzordeak sortu zituzten 1936ko urrian, eta agintean egon ziren 1937ko apirilaren 27ra arte. Markinan eta Xemeinen frontea geldirik egon zen zazpi hile horietan, aber tzaleek, ezkertiarrek eta errepublikazaleek lan asko egin zuten herritarren artean elikagaiak banatzen, Markinako frontean zeuden gudari eta miliziarrei laguntzen, elkarbizitza ziurtatzen, frontea sendotzen eta herritik metro gutxira zeuden matxinatu frankisten aurka borrokatzen. Dena dela, ia-talde bat ziren; interes batzuk komunean zituzten kategoria sozial gisa jarduten zuten; eta, ondorioz, talka egiten zuten batzuen eta besteen helburuak, interesak eta estrategiak. Horrela, antolaketa arazoak izan zituzten matxinatu frankisten aurka borrokatzerakoan, udal arazoak konpontzerakoan edo elkarbizitza antolatzekoan; are gehiago, ia-talde bat ziren heinean, istilu asko izan zituzten herriko tradizionalistekin eta eskuindarrekin nola jardun behar zuten zehazterakoan (Frontea geldirik egon zen zazpi hileetan 15 tradizionalista atxilotu zituzten, baina berehala askatu zituzten EAJ-koek egin zuten presioaren ondorioz) (Onaindia, 1937). Aldiz, tradizionalistak eta herriko jauntxoak interes talde bat ziren, eta argi zituzten zeintzuk ziren euren interesak eta interes horiek lortzeko bideak. Gerra garaian, oso ondo antolatu zituzten frontearen beste aldera jendea pasatze-

ko estrategiak, militar matxinatuei informazio pasatzeko espioitza sareak, edota sabotaje ugari prestatu zituzten errepublikaren aldeko soldaduen eta antolaketa militarren aurka (abade, agintari zein tradizionalistek parte hartzen zuten sabotaje haue-tan). Gerra ostean, euren interesen arabera errepresio eraginkorra bultzatu zuten. Ezkertiarrek eta abertzaleek gerra garaian antolatu zutena baino askoz bortitzagoa eta eraginkorra goa izan zen tradizionalisten errepresioa. Hitz gutxitan esateko, gerra garaian zein ostean, tradizionalistak agente aktibo giza jokatu zuten euren interesak babesten; jendea euren nahierara erabiltzen; eta herritarren artean ezkertiarren, abertzaleen eta euskaltzaleen aurkako jarrera sortzen.

8. Ezkutuko interesak eta ageriko interesak

Dahrendorf-en arabera (Dahrendorf, 1971), gatazka egoeretan interes taldeak agente aktibo bihurtu daitezten, ezkutuko interesak ageriko interes bihurtu behar dira. Izan ere, ezkutuko interesek aktoreen portaera bideratzen dute, baina aktoreek ez dute horren kontzientziarik. Aldiz, ageriko interesek aktoreen portaera bultzatzen duten arrazoi kontzienteak sortzen dituzte. Alegia, ezkutuko interesek interes gatazkak sortzen dituzte, baina agerikoak eta kontzienteak ez direnez, ia-taldeak sortzen dituzte bakarrik, eta, ikusi bezala, horrelako taldeak ez dira oso eraginkorrak modu antolatuan eta agerikoan talde interesak babesteko. Ageriko interesek, aldiz, talde aktiboak sortzen dituzte (alderdi politikoak, sindikatuak, gizarte mugimenduak...), eta hauek gai dira helburuak zehazteko, eta euren interesak lortzeko ekintza egitasmoak eta estrategiak sortzeko eta garatzeko.

Markinako eta Xemeingo EAJ-ko kideek, Alderdi Sozialistakoek eta Izquierda Republicana-koek elkarrekin borrokatu zuten errepublikaren alde eta matxinatu militarrena aurka, baina interes desberdinak zituzten ia-taldea osatzen zuten.

Euzko Alderdi Jeltzaleko kideak katoliko sutsuak ziren, euskaltzaleak eta estatutuaren eta eskubide foralen alde borrokatzen zuten. Ia gehienak dendariak eta baserritarrak ziren.

Markinako Batzorde Sozialistako kide gehienak, aldiz, klase kontzientzia zuten soldatapeko langile industrialak ziren. Gizarte sozialista eta ateo baten alde borrokatzen zuten.

Izquierda Republicana alderdiaren jarraitzaileak Errepublika Federalaren defendatzen zuten; Foruen interpretazio liberala egiten zuten; eta bizkaitar sentimendua eta identitatea babes-ten zituzten. Bizkaiko errepublikazaleak tradizionalisten aurka-koak ziren, ez ziren oso elizkoiak, monarkiaren aurka agertzen ziren eta Errepublikaren alde. Ia gehienek lanbide liberalak zituzten (botikariak, tabernariak, okinak...).

Hiru alderdi hauetako kideek elkarrekin borrokatu zuten matxinatu frankisten aurka, baina hain interes desberdinak zituztenez, kontraesan eta gatazka ugari sortzen zen euren artean. Ia-talde bat ziren, eta gerra garaian, boterea izan zuten zazpi hileetan, arazo asko izan zituzten helburuak finkatzeko, estrategia zehazteko eta matxinatuen aurka modu antolatuan eta eraginkorrean borrokatzeko.

Tradizionalistak, aldiz, gai izan ziren, bai Errepublika garaian, gerrako hileetan zein gerra ostean, euren interesak zehazteko eta modu agerian eta aktiboan babesteko. Euren interesen kontzientzia zuten heinean, hobeto antolatu ziren eta agente aktibo gisa parte hartu zuten gatazkan.

9. Gatazkaren intentsitatea eta bortizkeria

Dahrendorf-ek (Dahrendorf, 1971:188-198) bi eskalen arabera aztertzen ditu gizarte gatazkak: gatazken intentsitatearen arabera eta gatazken bortizkeriaren arabera.

Intentsitateak gatazka batean nahastuta daudenen parte hartze mailarekin zerikusia du; alegia, parte hartzaileek gatazkan

erabiltzen duten energiarekin. Gatazkaren intentsitatea handia izango da inplikaturik daudenei gatazka asko axola bazaie; hau da, gatazka galtzearen ondorioak handiak badira.

Ezkertiarren eta abertzaleen aurka gerra ostean hasi zen errepresioa oso intentsua izan zen Markinan eta Xemeinen. Tradizionalistek eta jauntxoek arriskuan ikusi zituzten euren autoritatea, interesak, ideologia eta, oro har, bizimodua, eta, ondorioz, guztiz inplikatu ziren abertzaleak, ezkertiarak eta euskaltzaleak salatzen, umiliatzen eta kartzelaratzen. Gainera, Dahrendorf-en arabera (Dahrendorf, 1971:188-198), gatazken intentsitatea handitu egiten da gizarte gatazkek elkar pilatzen direnean. Alegia, gizarte batean dauden elkarten arteko gatazkek bata bestearengandik desberdintzen ez direnean. Gerra ostean, gatazka politikoa, ekonomikoa, erlijiosoa eta soziala nahastu egin ziren, eta horrek intentsuagoa bihurtu zuen gatazka. Beste berba batzuekin esanda, errepresioaren bidez, autoritate politikoa, erlijiosoa, ekonomikoa eta soziala, guztiak batera, berreskuratu nahi izan zituzten tradizionalistek, eta horrek maila, talde eta sektore desberdinen aurkako errepresioa eragin zuen.

Gatazka baten bortizkeriari dagokionez, Dahrendorf-ek dio (Dahrendorf, 1971) gatazka baten bortizkeria txikiagotu egiten dela gatazka araupetzen denean. Eta horrek esan nahi du gatazkan dauden parteek elkarrengandik aldentzen diena onartzen dutela, beste aldean errespetatzen dutela eta elkarrekiko harremanetan arau komun batzuk errespetatzen dituztela. Gerra osteko bortizkeria handia izan zen Markinan eta Xemeinen, araurik gabeko gatazka izan zelako. Herriko tradizionalista eta jauntxoek ez zituzten aurkariak onartzen ezta errespetatzen ere, eta, ondorioz, inolako arau edota gizatasunik gabeko errepresioari ekin zioten.

Dahrendorf-en arabera (Dahrendorf, 1971:188-198), gizarte egituraren aldaketa are eta erradikalagoa da zenbat eta gatazkaren intentsitatea handiago izan. Eta gizarte baten egitura

are eta bizkorrago aldatzen da zenbat eta gatazkaren bortizkeria handiagoa izan.

Nire ustez, gerra osteko errepresioa intentsua eta bortitza izan zen, hain zuzen ere, Errepublika garaian maila politiko, ekonomiko, sozial eta erlijiosoan eman ziren gizarte aldaketak errotik ezabatu nahi izan zituztelako.

10. Ideologia eta gatazka

Lewis Coser-en arabera (Coser, 1964), gatazkan parte hartzen dutenek elkarteen eta taldeen izenean parte hartzen dutenean, eta, euren helburuengatik borrokatu beharrean, ordezkatzen duten taldearen ideiegatik eta helburuengatik borrokatzen dutenean, erradikalagoak eta errukigabeagoak bihurtzen dira. Helburu pertsonalak gatazkatik alboratzen direnean, gatazka bortitzagoak sortzen dira (Proposition 12: Ideology and Conflict; Coser, 1964:111-119)⁶.

Bigarren errepublika aldaketa garaia izan zen Espainian, Hego Euskal Herrian, eta, ondorioz, baita Markinan eta Xemeinen ere. Sakoneko aldaketa politikoak, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak gertatu ziren 1931tik 1936ra, eta horrek ordura arteko balioak, pentsamoldeak, jarrerak eta botere harremanak aldatu zituen:

1. Markina, Xemein eta inguruetako herrien egitura sozial eta ekonomikoa aldatu egin zen Bigarren Errepublikako urteetan. Nahiz eta Errepublika aldarrikatzen denean Markina eta, batez ere, Xemein guztiz zeuden lotuta nekazaritzari (Mugartegi, 1927), lanpostu industrialak ugaritzen ari ziren. Ondorioz, sindikatueta eta ezkerreko alderdietan afiliatuta zeudenen kopurua handitzen ari zen, nekazaritzak ekonomian zuen garran-

⁶ Coserren hitzak erabiliz (Coser, 1964:118), "Conflicts in which the participants feel that they are merely the representatives of collectivities and groups, fighting not for self but only for the ideals of the group the represent, are likely to be more radical and merciless than those that are fought for personal reasons."

tzia gutxitzen, eta maizterren eta etxe jabeen artean zegoen mendekotasun harremanak ahultzen.

Nekazaritzan ere aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren. Markina eta Xemein inguruan, minifundioa zen nagusi, eta nekazarien artean agertzen zen gatazka handiena etxe jabe eta maizterren artekoa zen; alegia, maizterrek bizi ziren etxaldekiko zuten eskubideekin zerikusia zuen. Dena dela, nekazariak euren arazoak kontzientzia hartu zuten Errepublikara garaian, eta antolatzearen garrantziaz ohartu ziren. 1934. urtean, Euzko Nekazarien Alkartasuna Markinan eta Xemeinen hedatu zen. Gipuzkoan sortu ostean, Markinako izan zen Bizkaian sortu zen nekazarien lehen herri batzordea (Larrañaga).

2. Ikuspuntu politikotik, kontuan hartzekoa da EAJ asko indartu zela Errepublikara garaian, eta, lehen aldiz, alkatetza lortu zuela Markinan 1931n. Tradizionalistek eragin izugarria zuten ingurune honetako herritarren artean, baina EAJ gero eta indartsuagoa zen, eta, ondorioz, autonomia estatutuaren aldeko jarrera gero eta hedatuagoa zegoen.

3. Beste aldaketa garrantzitsu bat emakumeen eskubide sozial eta politikoaren arloan gertatu zen. 1931n, emakumeen bozka eskubidea onartu zen, eta, apurka-apurka, emakumeen partehartze publikoa eta protagonismo politiko eta soziala handitzen hasi zen. Horrela, Markinako eta Xemeingo emakume tradizionalistak Margaritak izeneko taldean antolatzen ziren; eta emakume abertzaleak Emakume Abertzale Batzuan. Berziki Emakume Abertzale Batzak garrantzi handia izan zuen emakumeen kontzientziak astintzen, emakumeak mugimendu politiko eta kulturaletara bideratzen, eta emakumeei ulertarazten mundua ez zegoela etxe edo eliza barruan.

4. Bigarren Errepublikako urteetan, euskal kulturaren aldeko jarrera asko indartu zen Markinan eta Xemeinen. Alde batek, EAJ-ren eskutik, euskarazko antzerkiak garrantzi handia hartu zuen Batzokian. Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat herri-

tan bezala, antzerkia ideologia abertzalea zabaltzeko erabiltzen zuten. Bestetik, herriko abade laguntzaileak ere euskaltzaleak ziren, eta euskararen eta euskal kulturaren aldeko hainbat ekimen bultzatzen zituzten: euskarazko antzerkiak, euskarazko eleberriak idazten zituzten, dotrina euskaraz ematen zuten, euskarazko klaseak eskaintzen zituzten...euskaltzaletasuna hedatzen ari zen.

5. Hezkuntzari dagokionez, Markina eta Xemein bi herri ziran, eta bakoitzak bere eskola zuen. Eskola biak publikoak ziren, udalaren eta gobernuaren babesaz zuten eta klaseak erdaraz izaten ziren. Bi eskola hauez gain, auzoetan era bazeuden Aldundiak sortutako auzo-eskolak. Azken hauetara inguruetako baserritarrak joaten ziren, eta Errepublika garaian, hauetari-ko batzuetan, euskaraz ematen ziren klaseak.

6. Markina eta Xemein gizarte oso erlijiosoak ziren, bai Errepublika aurretik zein Errepublika garaian, eta, ondorioz, elizgizonak izugarritzko boterea eta eragina zuten markinarren eta xemeindarren pentsamoldeetan eta, oro har, bizimoduan. Horrez gainera, kontuan hartu behar dugu Bigarren Errepublika garaian 70-77 bat erlijioso bizi zirela Markinako eta Xemeingo zazpi parrokiak eta komentuetan (Bilbao, Garaian, 1994-15:15), eta herriko alderdi politiko nagusienak (Comunion Tradizionalista eta EAJ) elizkoiak zirela eta harreman ona zutela elizarekin.

Hala eta guztiz ere, elizgizonen ideologia politikoa asko aldatu zen mende hasieratik Bigarren Errepublikara doazen urteetan. XX. mende hasieran, Markinako eta Xemeingo abade, fraide eta moja ia denak oso hurbil zeuden alderdi politiko kontserbatzaile, tradizionalista eta karlistengandik, hauek erlijioaren eta tradizioaren defentsa egiten zutelako. Ondorioz, eskuineko hautagaien aldeko bozka ematen zuten hauteskundeetan, eta herritarrengan zuten autoritatea erabiltzen zuten hautagai katoliko eta tradizionalisten aldeko botoa eskatzeko. Dena dela, mende aurrera doan heinean, eta batez ere 1918tik aurrera, gero eta eliz-

gizon gehiagok Sabino Aranak bultzaturiko mezu nazionalistak bereganatzen hasi ziren. Bigarren Errepublika garaian, hainbat elizgizon abertzale edota euskaltzale zeuden Markinan eta Xemeinen (horrek azaltzen du, halaber, abade eta fraide askok Euzko Gudarosteko kapilau gisa aritzeak). Gainera, abade eta fraideek arazo sozialen inguruko gero eta kontzientzia handiagoa zuten (Martin Ugalde, Argia, 1988-VII-3).

Errepublika garaian, markinar eta xemeindar gehienak nekazariak ziren, hautagai tradizionalisten aldeko bozka ematen zuten nagusiki, eta, gainera, mesfidantzaz ikusten zituzten industrializazioak zekartzan aldaketak, batez ere sozialismoarekin identifikatzen ziren ateismoa eta kultura laikoa. Dena dela, Hego Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala, mentalitateak, ideologiak eta balioak aldatzen hasi ziren. Eta horrek zailantzan jarri zuen herriko jauntxoek eta tradizionalisten autoritatea, status quo-a edota pribilegioak.

Gerra ostean, tradizionalistek agintea lortu zutenean, errepublika aurreko gizarte mota berreskuratzen saiatu ziren aurkariak desagerraraziz. Euren autoritatea berreskuratu nahi izan zuten, eta, horretarako, errukigabe eta bortizki zantzu zituzten euren ideologiaren, balioen, helburuen eta nahi zuten gizarte motaren aurka zeudenak. Tradizionalistek, helburu pertsonalak babestu ordez, gizarte mota bat eta ideologia eta balio batzuk babesten zituzten, eta, ondorioz, ez zuten zalantzarik izan eurek bezala pentsatzen ez zutenen aurka bortizkeria izugarria erabiltzerakoan: ezkertiarak, sindikalistak, errepublikazaleak, euskaltzaleak edo abertzaleak kartzelaratuak, fusilatuak edo desterratuak izan ziren. Edonolako parte hartze publikoa edo politikoa izan zuten emakumeen aurkako errepresioa ere izugarria izan zen. Tradizionalisten helburua zen familiari, elizari eta etxeko-lanei loturik zegoen emakumeen eredia berreskuratzea eta sendotzea. Ondorioz, Markinako Emakume Batzari ibili ziren emakumeek ihes egin behar izan zuten, eta gelditu zirenei ilea moztu zizkieten, atxilotu eta kartzelan sartu

zituzten, etxetik ateratzea galarazi edota beste batzuekin hitz egiteko debekua jarri zieten.

Abade euskaltzale eta abertzaleen aurkako errepresioa ere bortitza izan zen. Anizeto Urrutia parrokoak ihes egin zuen. Markos Espilla abade laguntzailea (Markina, 1876 – Markina, 1966) kartzelan sartu zuten militarrek, meza euskaraz ematen zuelako eta euskaltzalea zelako. Domingo (Txomin) Onaindia Zuloaga (Markina, 1901 – Anglet, 1985), joera nazionalistakoa zen, eta, horregatik, Frankoren tropak sartu aurretxoan, 1936an, Ipar Euskal Herrira erbesteratu zen, baita José Antonio Oar-Arteta Undabeitia abade abertzale eta euskaltzalea ere (Ajangiz, 1900 - Urberuaga, Markina-Xemein, 1978). Jose Sargana Larruskaingo abade laguntzailea eta Zelestino Onaindia Zuluaga Elgoibarko abade laguntzailea fusilatu egin zituzten, euskaltzaleak eta abertzale joerakoak zirelako. Azkenik, kontuan hartu behar da Karmengo Komentuko priorea Aita Martin Mariaren Bihotz Garbiarena, joera nazionalistakoa zela eta, horregatik, frankistak herrian sartu zirenean, preso hartu zutela eta jarduera nazionalistetan parte hartu zuela leporatuz, prioretzatik kendu egin zutela eta atzerrira bidali (Urkiza, 1992:289 eta 404-405 eta Urkiza, Unzueta eta Fdz. De Mendiola, 2005:380). Markinako Karmeldarren komentuan zeuden hainbat fraide abertzale eta euskaltzaleak kartzelan sartu zituzten urte askotan edota erbestera bidali zituzten.

11. Benetako gatazka eta ez-egiazkoa

Lewis Coser-en arabera, bi eratako gatazkak daude: egiazko gatazkak eta egiazkoak ez direnak, (Proposition 3: *Realistic and Nonrealistic Conflict*; Coser, 1964:48-55) .

Benetako gatazken bidez, gabezia bat sentitzen duten pertsonak edo taldeek gabezia hori ase nahi dute; hau da, gatazkek, kasu honetan, helburu zehatz bat lortzeko bitartekoak dira. Egiazkoak ez diren gatazkak, aldiz, ez dira sortzen aurka-

riek helburu desberdinak dituztelako, baizik eta gatazkan parte hartzen duten pertsona edo taldeek pilatuta duten tentsioa arindu nahi dutelako. Bigarren gatazka honetan, tentsioa arintzen da aurkarien aurkako ekintza bortitzen bidez⁷.

Egiazko gatazka bitarteko bat da helburu bat lortzeko, eta, beraz, helburua lortzen denean edo helburu hori lortzeko beste bitarteko bat aurkitzen denean, gatazka alboratu daiteke. Egiazkoak ez diren gatazketan, ez dago horrelako alternatibarik. Asegarritasuna ekintza bortitzak berak ematen du.

Coserren proposamen honi jarraituz, Markinan eta Xemeinen gerra ostean eman zen errepresio bortitza ez-egiazko gatazka bat izan zen. Izan ere, Tradizionalistek, eskuindarrek eta jauntxoek ikusi zuten Errepublikara garaian urteetan izan zuten autoritateak ihes egin ziela; euren ideologia eta balioak zalantzan jartzen zirela; eta Markinan eta Xemeinen frontea geldirik egon zen hileetan, 1936ko uztailetik 1937ko apirilaren 27ra, hainbat une larri bizi izan zituztela. Arestian esan bezala, errepublikazaleek herriko buruzagi tradizionalista batzuk atxilotu zituzten, eta oso gaizki pasatu omen zuten kartzelan egon ziren egunetan. Horrez gainera, isunak ordaindu behar izan zituzten eta euren etxeak eta ondasunak bahitu zizkioten erabilpen militarerako. Honek guztiak sortu zuen amorru eta frustrazioaren ondorioz, gerra ostean ez-egiazko gatazka bat hasi zen. Gerra irabazi eta boterea eskuratuta ere, jauntxoek eta tradizionalistek jasan zituzten kalteen ordain gisa erabili zuten bortizkeria. Errepresioa euren amorrua eta tentsioa arintzeko modu bat izan zen.

12. Ondorioak

Atzerriratuak, fusilatutakoak, atxilotutakoak... Hego Euskal Herriko beste hainbat tokitan bezala, Markinan eta Xemeinen ere Gerra osteko errepresioa bortitza eta intentsua izan zen.

⁷ Lewis Coserrek dioen bezala: "...satisfaction is derived from the aggressive act itself" (Coser, 1964: 55).

Zein izan zen errepresio honen oinarria? Nola ulertu hile batzuk aurretik elkarrekin bizi zirenen arteko salaketak, isunak, atxilotetak edo fusilatzeak?

1. Bigarren Errepublikak zalantzan jarri zuen jauntxoek eta tradizionalisten autoritate ekonomiko, politiko, erlijioso eta soziala; ondorioz, gerra ostean, behin tradizionalistek eta jauntxoek boterea berreskuratu zutenean, euren autoritatea zalantzan jarri zutenak desagerrarazteko estrategia jarri zuten mar-txan. Horrela, abade eta fraide abertzaleen aurka, sindikatueta afiliatutako baserritar eta langileen aurka, eta alderdi abertzale, ezkertiar edo errepublikazaleetako militanteen aurka bideratu zuten errepresioa. Hauek guztiak modu bortitzean desagerrara-ziz, tradizionalisten eta jauntxoek helburua zen galdutako au-toritatea berreskuratzea.

2. Tradizionalistak, FET-JONS-eko kideak eta herriko jauntxoak interes talde bezala jokatzeko zuten, eta, ondorioz, argi zituzten zeintzuk ziren euren interesak eta interes horiek lortzeko bideak. Gerra garaian zein gerra ostean, tradizionalistak agente aktibo giza jokatu zuten euren interesak babesten; jendea euren interesen arabera erabiltzen; eta ezkertiarak, abertzaleak eta euskaltzaleak desagerrarazten.

3. Ezkertiarren eta abertzaleen aurka gerra ostean hasi zen errepresioa oso intentsua eta bortitza izan zen Markinan eta Xemeinen. Intentsua izan zen, gatazka politikoa, ekonomikoa, erlijiosoa eta soziala nahastu zirelako; eta bortitza izan zen, araurik gabeko gatazka izan zelako. Herriko tradizionalistek eta jauntxoek ez zituzten aurkariak onartzen ezta errespetatzen ere, eta, ondorioz, inolako arau edota gizatasunik gabeko errepresioari ekin zioten.

4. Tradizionalistek, helburu pertsonalak babestu ordez, gi-zarte mota bat eta ideologia eta balio batzuk babesten zituzten, eta, ondorioz, ez zuten zalantzarik izan euren bezala pentsa-tzen ez zutenen aurka bortizkeria izugarria erabiltzerakoan.

5. Gerra irabaztearekin ez ziren konformatu, tradizionalistentzat eta jauntxoentzat aurkarien samina gerra garaian jasan zituzten kalteen ordaina izan zen.

13. Bibliografia

- Alvarez Royuela, R. (2007): *Guerra de España 1936-1939. Testimonio de un militar de la Republica*. Hondarribiko Udala.
- Atxaga, B. (2007): *Markak. Gernika 1937*. Pamiela, Iruñea.
- Azcona, J.M. (2007): *Los desastres de la Guerra Civil Española*. Universidad Rey Don Juan Carlos.
- Baraiazarra, L. (2009): *Nire Sasoiko Markina-Xemein*. Markina-Xemeingo Udala.
- Barruso, P. (1996): *Verano y revolución*. R&B ediciones, Donostia-San Sebastian.
- Berriozabal, R. (1996): *Nacionalismo Vasco en Durango (1893-1937)*. Fundación Sabino Arana.
- Bidasoa (2005): *La guerra civil en Euzkadi. 136 testimonios inéditos recogidos por José Miguel de Barandiaran*. Bidasoa. Frantzia.
- Bilbao, M.A. (1995): *La villa de Markina-Xemein*. BBK Bilbo.
- Bilbao, M.A. (2009): *Cesta Punta*. Graficas Lizarra.
- Chueca, J. (2007): *Gurs. El Campo Vasco*. Txalaparta, Tafalla.
- Coser, L. (1956): *The Functions of Social Conflict*. Free Press.
- Dahrendorf, R. (1971): *Elementos para una teoría del conflicto social*. Editorial Tecnos, Madril.
- Egaña, I. (Director) (1999): *1936 Guerra Civil en Euskal Herria VI. La Ofensiva de Mola: Defensa y Caída de Bizkaia*. Aralar Liburuak.
- Egaña, I. (Director) (1998): *1936 Guerra Civil en Euskal Herria*. Aralar Liburuak.
- Egiguren, J.M. (1984): *El PSOE en el País Vasco (1886-1936)*. Haranburu-editor, Zarautz.

- Euzkadi: “Población de los Ayuntamientos”, 1936-12-20.
- Garaian* aldizkaria: “Markina-Xemein”, *Garaian*, 1. zenbakia, 1987
- Gerrikagoitia, T. (2000): *Arantza eta larrosa. Nire bizitzaren gomutak*. Sendoa, Oiartzun.
- Goñi, J. (1989): *La Guerra Civil en el País Vasco: una Guerra entre católicos*. Vitoria.
- Gorosabel, O. (2006): “70 urte, Amalloko Abadia Afusillatu Zebela”. Ondarroako Historia Zaleak: *Ondarroa 2006*. Ondarroako Udala, 112-117 orrialdeak.
- Irazabal Agirre, J. (2001): *1937 martxoak 31. Durango. 1937ko martxoaren 31n Durangoren aurka egindako aire-bonbardaketari buruzko azterlana*. Gerediaga Elkartea, Durango.
- Juaristi, P. (2006): “Gerra Zibila Markinan eta Xemeinen I”. *Garaian aldizkaria*, 39. zenbakia, Markina-Xemein.
- Juaristi, P. (2007): “Gerra Zibila Markinan eta Xemeinen II”. *Garaian aldizkaria*, 40. zenbakia, Markina-Xemein.
- Juaristi, P. (2008): *Gerra Zibila, Jendea da Hila*. Markina-Xemeingo Udala.
- Lacomb, J.A. (1998): *Introducción a la Historia económica de la España Contemporánea*.
- Larrañaga, P.: *Contribución a la historia obrera de Euskalerría. Solidaridad de Trabajadores Vascos*. Auñamendi.
- Lorenzo, F: *Markina-Xemein*. Bizkaiko Herrien Monografiak. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbao, 1996.
- Manresa, A. (2009): “José Mari Aguirre Salaberría, superviviente de Mauthausen”. *El País* egunkaria (2009-9-10).
- Mendizabal, J.M. (2008): *Gudaris y rebenes de Franco (1936-1943)*. Alberdania, Irun.
- Molina, F. (2005): *Jose Maria Arizmendiarieta. 1915-1976*. Caja Laboral, Arrasate.

- Mugartegi, J.J. (1927): *La villa de Marquina*.
- Oar-Arteta, J.A. (1991): *Zaar-Barri*. Labayru, Bilbao.
- Onaindia, A. (1980): *Hombre de Paz en la Guerra. Obras completas de Alberto de Onaindia*. Editorial La Gran Enciclopedia Vasca. Kardaberaz Bazkuna.
- Onaindia, A. (1937): Alberto Onaindiaren Artxiboa, “La Guerra Civil Española en Markina” txostena, 1937, 20. kaxa, argitaratu gabea. Publicaciones Documentales del Clero Vasco: *El Clero Vasco Frente a la Cruzada Franquista*, Bigarren bolumena. Editorial Egi-Indarra.
- Rodríguez Ranz, J.A. (1996): *Jesús Maria Leizaola, denborak garaituz*. Sabino Arana Kultur Elkargoa, Bilbo.
- Sierra, F. eta Alforja, I. (2006): *Fuerte San cristóbal, 1938*. Pamiela, Iruña.
- Tilly, C. (2007): *Violencia Colectica*. Hacer editorial, Bartzelona.
- Ugalde, M. (1988): Argia, 1988-VII-3.
- Urkixo Olano, I. (1947): “Breves recuerdos históricos con ocasión de una visita a Munibe” RSBAP-ren boletina, Donostia.
- Urkiza, J. (1992): *Karmeldarrak Markinan (1691-1991)*. Historia eta agiriak. Karmel Sorta 5, Zornotza.
- Urkiza, J., Unzueta, A. eta Fdz. De Mendiola A. (2005): *Provincia carmelitana de San Joaquín de Navarra. Carmelitas en Euskal Herria (Siglos XIII-XX)*. Ediciones El Carmen, Vitoria-Gasteiz.
- Zubikarai, A. eta Fdez Egiguren J. (1991): *Markina-Xemein I eta II*.

Patxi Juaristi